

Azpeitiko
sokamuturra
SOKA EZ DA ETEN

dokumentala



AZPEITIKO SOKAMUTURRA
SOKA EZ DA ETEN

dokumentala

ZUZENDARIA

Enekoitz Esnaola

ERREALIZADOREA

Lara Madinabeitia

ARGITARATZAILEA

Zezen Beltz elkarte

AURKIBIDEA

500 urteko historia	05
Sokamuturraren atzean lan handia	
Ganaduzaleak	09
Sokamutilak	12
Plazarik fuerteen Azpeitiko	15
Lehen argazki bilduma	23
Sokamuturraren bueltan	
‘Botijo’, zezen mitikoa	39
Etxe Zurineko irteera hura	41
Gero eta segurtasun neurri gehiago	41
Baina, inor ba al da seguru?	42
Argazkilarien uneak	42
Eguraldiak lagundu ez arren	44
Beste pasadizo batzuk	45
Zezenak kamioian kargatzen	46
Sokamutilen kilimak	46
Lau orduko saioa, lau mila euro	47
Zezen Beltz elkartearen lana	47
Soka ez da eten	49
Bigarren argazki bilduma	51

500 URTEKO HISTORIA

Albizu ganadutegiko zezenak dira. Mutrikun dute Anton Albizu eta Lourdes Udabe senar-emazteek ganadutegia, Olatz auzotik gora, eta haiena da Azpeitiko sokamuturrean urte gehien daramatzana; 40 urte. 1971n hasi ziren ekartzen ganadua, Antonen aita Martzelinok egiten zuela baserriko buru.

Historia luzeagoa du herriko sokamuturrak. 500 urtekoa, gutxienez. 1918koa da aurkitu ahal izan den argazkirik zaharrena; 1923koa hurrena. Lehenengo datuak, ordea, XVI. mendekoak dira.

Hain zuzen, Imanol Elias Odriozola historialariak zezenari buruz Azpeitiko Udal Artxibategian topatutako albisterik zaharrena, 1518koa da: Gipuzkoara bisitaldi bat egin zuten Espainiako erregeek eta, bost dukat ordainduz, gertakizuna ospatzeko zezen bat alokatu zion herriak Pedro Ruiz de Agirrerri.

Imanol Elias Odriozola (historialaria):

“Jasotako ondorengo albisteak dira 1522koa, 1533koa eta hor tartean beste askotan ere izan dira. Esaten ez dena da horietan sokamuturra denik. Askotan esaten da leku itxi batean-edo jolasten direla edo hesiak ipinita bezala-edo. Ez dakigu izango zen leku itxi batean zehazki edo kaleetako pasadizo batzuk itxita, entzierro bezala edo horrelako zerbait. Ez da esaten horrelakorik seguru-seguru. Baina badago data bat ja jo dezakeguna sokamuturraren hasiera bezala, datuz jasotakoa: 1567.goa. Erreginak seme bat izan zuelako eta abar Azpeitiko herriak nahi izan zuen halako festa bat-edo antolatzea, eta hor bai agindua eman zitzaion udal aldetik edo udaleko agintarien aldetik sokekin zezenak jolasteko kalean”.

Sansebastianetan, karnabaletan... historikoki egon da zezena Azpeitian. Festa egun batez aurreneko aldiz 1542an izan zen kalean, Santiyo egunez. Imanol Eliasek San Agustin festak ere aipatzen ditu.

Imanol Elias Odriozola (historialaria):

“Azpeitiko herriak bazituen izendatutako egun batzuk bere jaiak-eta

egiteko. San Agustin bat, esate baterako. Bere komentuarien aurrean plaza handia zenez —geroago sortu zena—, hor izaten ziren zezenak, eta askotan, gainera, itxitura batekin ipinita; zezenak libre jolasten ziren. Badira urte batzuk jendeak eskaintzen zituela zezenak, eta urte bakarren batean hamabi zezen ere baziren eskainita hor jolasteko”.

Noiznahi baliatu izan dute aukera azpeitiarrek zezena izateko kalean. Beste adibide batzuk aipatzearren:

- San Inazio beatifikatu zutenetik (1609tik), saninazioetan zezenketak eta, batik bat, nobilladek indar handia hartu zuten. XVII. mendean-eta zekorketa edo zezenketa bukatzean erdi kastako zezen bat edo bi ateratzen zituzten herritarrentzako. Bertako harakinari eskatzen zioten ganadua. XX. mendearen hasiera partean San Inazio hirugarrengoz eta inoiz laugarrengoz zezen plazan atera izan zuten zezen enbolatua. Baita zezen plazan karnabaletan ere; 1909an bezala.

- Herriak saninazioetan nobilladak-eta antolatzeke diru gehiegirik ez zuenean, egitaraua betetzeko erremedioa sokamuturra zen. Hala dio 1777ko udal akta batek.

- 1906ko urtarrilaren 3an, berriz, Inazio Bereziartua zinegotziak proposamen bat egin zuen: sansebastianetik karnabalak arteko igande guztietan izatea sokamuturra Azpeitian. Onartu egin zuen Udalak. Kostua denera: 532 pezeta. Aurretik ere izan zen gauza bera: 1900ean, 1903an, 1904an...

- Karnabaletan ostegun gizen egunez ere egon izan da sokamuturra. Baita, harritzekoa izan arren, jai karnabalean korrida ere; 1681ean, esaterako.

- Beste adibide bat: korpus ondorengo lehen igandean kalean zezena izan zen urteetan. Nafarroatik Debara festetara zeramatzen zezenak Azpeititik pasatzean, herrira desbideratzen zituzten azpeitiarrek.

- 1896koa da hau: epaitegia berriro martxan zutela ospatzeko, Udalak sokamuturra jarri zuen.

- 1535ekoa beste hau: Espainiako erresumak Tunisia hartu zuela ospatzeko, Azpeitian egun batean, bi aldiz zezenak kalean.

- Edota entzierroak ere izan ziren XX. mende hasierako festetan.

Sokamuturraren zaletasunak sustrai sendoak dauzka Azpeitian. Txikitatik arnasten da.

Joxin Beloki (sokamutil ohia):

“Txikitatik etortzen zitzaigun guri afizioa. Hemen [parte zaharrean] adar batzuk genituen, soka ere bai, eta noiznahi [Eliz kale eta Erdi kale arteko] kantoi honetatik bueltan ibiltzen ginen, soka hartu eta esaten genuen: ‘Hi, aterako al dugu sokamuturra?’. Halaxe sortu zen, guretzako behintzat, afizio hori”.

Espainiako Gerra garaian kendu izan zuten zezena Azpeitian, beste data zehatz batzuetan ere bai, baina beti berreskuratu zuen herriak.

Sokamuturrak Azpeitian onarpen handia duela azaldu nahian, Joxin Belokik 1971n astearte karnabalerako emandako debeku bat jartzen du adibide modura: herriak aurre egin zuen, alkateorde bati kargu hartuta Artetxeneko hostaleko tabernan.

Joxin Beloki (sokamutil ohia):

“Karnabalak ziren, eta astelehen iluntze batean *Errota* —‘Enrique’ izena zuen— Artetxenean zegoen tabernan, eta jendea joan egin zitzaion protestatzera eta abar. Neu ere hantxe nintzen. Hemen abokatuastelehenetan etortzen zen udaletxera, kanpotik etortzen zen, eta harekin zegoen hizketan eta, jakina, ikusi zuenean liskar hura, abokatu hori pixka bat kezkatu egin zen. Ni joan nintzen eta niri galdetu zidan: ‘Ea, zer pasatzen da hemen?’”.

Udalaren abokatuak alkateorde hari esan zion argi ibiltzeko halako kontuekin, herria indarra egiten ari zelako. Alkateorde harekiko presioa ez zen han bukatu. Bere etxe atariraino joan zen jendea, Enparan kalera, udal ordezkariaren burua nahi zutela-eta oihu eginez, Belokik dioenez.

1991ko sansebastianetan beste arrazoi bategatik geratu ziren azpeitiarrak zezenik gabe: *zezenaren gaitza* izeneko gaixotasunagatik. Udalaren orduko egitarauan ikus daiteke ez zela sokamuturrik jarri, ez hamabietan,

ez lau eta erdietan. Andoni Unanue sasoi hartako sokamutilak kontatu izan du "festa negargarriak" izan zirela haiek, jendeak esaten zuela hura ez zela Azpeitia. Karnabaletan bai, izan zen sokamuturra. Ordukoak dira irudiok.

SOKAMUTURRAREN ATZEAN LAN HANDIA

Ganaduzaleak

Sanasebastianetan eta karnabaletan izaten da sokamuturra, batez ere. Ordu askoan. San Sebastian egunean, esaterako, lau orduan. Karnabale-tan, hiru eguneko festan, 72 ordutik hamalautan, goiz, eguerdi, arratsalde eta iluntze partean tartekatuz. Ordu askoan ez ezik, herrigune osoan ere bai.

Azpeitiko sokamuturraren atzean, ordea, lan handia dago, ganaduzaleen eta sokamutilen sakrifizioa dago, guztia ondo atera dadin eta tradizioak aurrera jarrai dezan.

Garai batean ganadutik bizitzerik bazegoela diote ganaduzaleek. Gaur ez. Fernando Zubiaurre (Gorixo ganadutegia, Mutriku):

“Gastua handia da. Honekin bakarrik ez dago bizitzerik. Beste nonbait lana eginez eta horrelaxe. Hau da afizio bat dugula, baina oraingo gazteek ez dute askorik segituko honekin, lan asko egin beharra egoten da. Gure ganadutegian aita hasi zen, gero pixka bat utzi zuen, eta gero neu hasi nintzen. 57 urte egin behar ditut eta neuk bizi guztian dut ganadua etxean”.

Andoni Mugerza (Arno ganadutegia, Mutriku):

“Ganaduarekin, azken batean, urte guztian lana egin behar duzu, urte guztian atenditu behar duzu. Ezin duzu huts egin egun batean ez dakit zer, badakit zer... Urteren batean igual diru pixka bat atera dezakezu, hurrena igual gutxixeago. Zorte pixka batekin igual txahal batzuk jaioko zaizkizu, ondo irtengo zaizu, igual beste zezen bat behietara botako diozu, zure ustetan ona, eta igual jaioko zaizkizu txahal eskasak, eta urte guztian egin duzun lana txahal horiekin denekin, ba gelditzen zara galduta pixka bat”.

Andoni Mugerzak Azpeitian du etxea eta lantokia. Ez du, Gorixoko edo Albizukoek bezala, baserrian egiten lo.

Andoni Mugerza (Arno ganadutegia):

“Nire bizimodua da Azpeitian lana eta Azpeitian lo, eta hemen [Arnon] bizi, neure gustura bizi hemen. Hemengo ganaduarekin bakarrik ez dagoenez bizitzerik, derrigor lanera joan behar duzu. Etxera [Arnora] eto-

rri, ganadua ikusi pixka bat, jatekorik dagoen ikusi, jatekorik ez badute kanpoan daudenentzat jan ontziak-eta bete, fardo handiak-eta ipini traktorearekin. Eta barruan daudenei pentsu pixka bat eman, lasto pixka bat eman, jateko pixka bat eman. Kaka baldin badute, kaka egunero ez da erraza ateratzea, baina kaka saiatu kentzen ere...”.

Albizunean, Antonen emazteak, Lourdes Udabek du ganadua zaintzeko-eta ardura, senarrak baserritik kanpo egiten baitu lan. Goizean jaiki eta etxeko lanak egin ondoren, kortara joaten da askak garbitzera lehenik. Pentsua eta lastoa ematen die zezenei, eta goian larrean daudenak behera jaisten ditu, jaten emateko. Ganadua ere garbitzen du goiz partean. Iluntzean tokatzen da berriro jaten ematea: pentsua, patata, lastoa... Orduak horrelaxe egunero. Senarrari ganadua apartatzen edota zezenak lotzen ere laguntzen dio irteera dutenean.

Lourdes Udabe (Albizu ganadutegia, Mutriku):

“Ordutegian ez da hain sakrifkatua ere. Bestela, bai. Lan aldetik segitu egin behar duzu; hainbeste ganadu badaukazu, denei eman egin behar diezu eta zaindu egin behar dituzu”.

Batzuetan larri pasatutakoa da. Behin idisko bat soltatu egin zen ikui-luan.

Lourdes Udabe (Albizu ganadutegia):

“Normalean-normalean idiskoak katearekin eta sokarekin edukitzen ditugu, bat eteten bada. Baina kasualitatea, hura ez zegoen hala, eta katea eten eta aidean aldameneko idiskoa, gora eta behera; hau katearekin nola zegoen, ezin zuen defenditu. Neure estutasuna! Ate denak ireki, eta kanpora bota nituen”.

Beste ganaduzaleek bezala, Anton Albizuk ere aipatzen du zaila dagoela egoera beraien munduan.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“Lehenago joaten zinen udaletxetara, eta dirua atera egiten zen. Baina orain joaten zara eta ‘krisia daukagu, ez daukagu dirurik eta ezin dugu, lehengo prezioan egin behar da’. Eta joaten gara pentsutara eta... Hogei pezeta azpitik, hemezortzi-hemeretzian ekartzen genuen orain lau-bost urte, eta orain... Azkenekoz gabon egunean ekarri nuen, eta artoa 43

pezetan pagatu nuen eta orain dela bi hilabete ekarri zena 36an-edo; zazpi pezeta bi hilabetea igo dizkigu. Plazetan ez digute igotzen eta hemen ez dago, ez dago...; baserri kontuan, zezenean eta osterantzean denean dago porrota handia. Hau zelán bukatuko den...”.

Urteak daramatzate ganaduarekin lanean, hango eta hemengo festetara idiskoak eramaten, edo larre-behiak, zezen txikiak, poniak... Arnonia hutsetik hasi ziren.

Agustin Mugerza (Arno ganadutegia):

“Arno mendian plantazioak-eta jarri zituztenean Diputazioak eta udalak-eta kexaka egon ziren, eta ganadu dena kendu egin ziguten. Baina bakarren batzuk geratu ziren, atzean geratu ziren batzuk. Orduan, gu gazteak ginenean, batzuk hasi ziren kopuru aldetik hazten, beste batzuk Lasturtik erosi ere bai, eta hortik hasi ginen ni eta hemengo Joxe Mari larre-behi bat erosi hari, beste bat ere Lasturtik erosi genuen Zelai Luzetik, eta ipintzen hasi ginen”.

Badira 40 urte ekin ziotela, eta estreinako urteko lehen plazaz ez du oroitzapen gozorik Agustin Mugerzak.

Agustin Mugerza (Arno ganadutegia):

“Lehen plazara joan ginen, ezagun bat tokatu zitzaigula-eta: Elgoibarko *Altzola*. Lehenengo zezena atera genuenean, erre kara ihes egin zigun. Kristoren espektakulua egon zen arratsalde guztian, poliziak-eta denak atzetik. Azkenean hurrengo goizean harrapatu genuen”.

Anton Albizuk, bere aita Martzelinoren lekukoa jaso zuen. Lau urte zituela joan zen Martzelino Lasturtik Olatz gertuko baserri batera bizitzera: Etxerre-ra. Pare bat behi zituzten orduan, eta trenean eta ahal zen moduan eramán zituzten.

Gorixokoen baserriak 500 bat urte dauzka, eta han ere ganadu faltarik ez da izan. Fernando Zubiaurrek dio bere aitak ere trena-eta erabili izan zuela zezenak herrietara eramateko.

Fernando Zubiaurre (Gorixo ganadutegia):

“Garai batean kamioiak ez zeukan atzetik arranzplarik, eta horma baten gainean arrasean ipintzen genuen, gero astoarekin ipini bi zezen alde banatan lotuta eta herri denetara joaten ginen. Han igual-igual jaitsi, eta

etxera etortzen ginenean, solte etortzen ziren, baina eramatekoan astoari lotuta. Gure aita zena lehen Tolosaraino joaten zen, hartu soka zezena, eta Zornotzara ere bai, lotu idiei ere, alde banatan lotuta zezena, pasatu egun guztia eta atzera etxera”.

Sokamutilak

Sokamutilak ere beharrezkoak dira sokamuturra izan dadin, eta haiek ere sakrifikatu beharra dute.

Dena dela, Azpeitian sokari tiraka ez dira beti jardun izan horretara euren borondatez prestatutako lagunak. Garai batean udaltzainek zeukaten ardura hori, gauzainek. Behartuta, nonbait. 1887. urtekoa horren adibide.

Imanol Elias Odriozola (historialaria):

“Gertatu zen gauzainek ibiltzen zutela zezena astearte goizean—goizeko zazpitan ateratzen den zezen hori—, eta ez zuten nahi izan atera; nonbait, ez ziren gustura ordaintzen zietenarekin edo bere lana ez zutelako pentsatzen hori zenik”.

Udalak gauzainen jokabidea hutsegite eta desobedentzi bezala hartu zuen, eta bakoitzari bost pezetako isuna jarri zion.

1899an beste sestra bat: bi azpeitiarrek soka moztu zuten. Udalak parte sartu, eta epaiketa izan zen.

Gauzainek uko egin ondoren, Azpeitiko harakinek eta ganadu-hil-tzaileek ekin zioten soka ibiltzeari. Badira dagoeneko ia 125 urte. 1925erako, berriz, ja sokamutilak bazeuden. Ordukoa da argazkia. Ez ziren guztiz zuriz jazten: Udalak alpargata zuriak ematen zizkien, etxeko alkandora zuria jazten zuten, baina prakak, nahi zena.

Gero hasi ziren dena zuriz jazten. Joxin Beloki bera 1953 alderako bazen sokamutil, eta ordurako txuria zuten arropa; 1961eko argazkian hor ageri da, ezkerretik bigarrena.

1974ra arte lau ziren sokamutilak. Ordukoa da irudia. *Soka-mutilak* kanta zaharrak hala dio:

*Gu denok lau mutil gera
soka ibiltzen geranak,*

saltoka ta brinkoka

zezena eramana.

Lautik bost sokamutil izatera 1975ean pasatu ziren, garaiko argazki honek erakusten duen moduan.

Gogoia behar da sokamutil izateko.

Luis Angel Etxeberria (sokamutil ohia):

“Ume-umetatik nire ilusioa beti soka irtetea izan zen. Zezena gustatzen zait, baserrian ere asko ibili naiz, orduan ganadua asko gustatu izan zait, eta nire ilusioa zen soka irtetea”.

Baina lana da, gogorra, eta musutruk dena.

Luis Angel Etxeberria (sokamutil ohia):

“Ni neuk festa aldetik asko laga egin behar izan dut. Adibidez, San Sebastian egun batean hemen jendeak umeen danborradan-eta txikiteo ederra eta bazkaria egiten du, baina [sokamutil izandako garaian] nire lana izaten zen pintxoren bat-edo jan, etxera joan azkar, bazkaldu eta siesta pixka bat egin. Familiarekin-eta nik ezin izan dut bazkaldu hemeretzi urtean, ez karnabale-tan eta ez San Sebastian egunez. Zezenaren arabera, lau eta erdietarako prest egon behar duzu. Siesta eginez gero-eta atsedena ondo etortzen da. Oso ahalegin gogorra da, esplosiboa, eta nekatu egiten da asko, asko”.

Mikel Odriozola (sokamutila):

“[Sokamutil bat hartzeko orduan] Begiratzen dena da gehienbat baten bat prest egotea. Izan ere, sokamutil izatea ez da egun batean irten eta kito. Karnabalak, sansebastianak eta festak, eta asko sakrifikatu behar duzu”.

Azken batean, ordea, zaletasuna daukate. Horrek lotzen ditu.

Luis Angel Etxeberria (sokamutil ohia):

“Sokamutiletan [urte aldetik] aldea egoten da. Amistade bat egiten da hor, eta ez da ahazten. Ni gazteekin oraindik ere oso ondo eramaten naiz—dabiltzanekin—, lehengoekin ere bai. Marka bat geratzen da barruan, eta horrek betiko irauten du”.

Giro on horren seinale, 2009koa. Sokamutil izandako batzuei broma artean erronka bota zieten ordukoek: ezetz irten soka jai karnabal eguerdiko zezenean? Halaxe-halaxe, berotu, baiezkua eman, eta han atera

ziren sokamutil Jexus Arakistain, German Rekejo, Andoni Unanue, Bittor Olaizola eta Xipri Aranbarri.

Pasadizo asko bizi izan dituzte sokamutilek.

- Adibidez, sokamutil batek 2001eko sansebastianetan lehen aldia zuen sokan aurreneko bezala, eta *Idi Beltz* zezen hauxe sokamutilak baino lehenago iritsi zen plazara. Garai batean sokamutilek txakolina irabazten zuten plazara zezena baino lehenago ailegatuz gero.

- Beste sokamutil bat 16 urtean sokan ibili eta erretiratzear zela, azkeneko saioan bost bat minutu falta zirela zezena erretiratzeko, Enparan kalean zartada hartu zuen. Ospitalean bederatzi egunez egon zen mutila.

- Beste sokamutil batek sokan aurreneko karnabalak zituen, eta bera izan zen zezenak harrapatutako lehen laguna. Hari ere atera zioten momentu horretako argazkia, eta irudiak lehiaketan saria jaso zuen.

Luis Angel Etxeberria (sokamutil ohia):

“Bagoaz zezena eramatera sokan Eliz kaletik Enparan kalera, eta soka argoilan lotu behar genuen lekuan auto bat zegoen aparkatuta, eta sokan aurrena zihoanak esan zuen: ‘Hau zein kabroirena ote da?!’. Handik pixka batera lagun hori falta zen, eta ‘nora joan da halako?’ eta ‘ez zakiagu’, eta harena izan autoa! Azpeitiko sokamutil batek autoa aparkatuta laga zuen zezeneko orduan Enparan kale batean...”.

Badira sokamutilen pasadizo gehiago, jakina.

- Sokamutil bati astearte karnabal goiz batean ez zitzaion zezenean irtetea tokatzen, eta parrandara atera zen. Ordu txikietan jakin zuen kide batek ezin zuela sokamutil irten. Inpernu soziedadean gosaldutako eta lasterka joan zen etxera, aldatzera. Etxetik atera eta bidean zela jo zuen lehen etxafuegoak, eta sokamutil hura han agertu zen aurpegiko margoak oraindik kendu gabe.

- Beste urte batean, atera zuten zezena, Plaza Txikira iritsi, eta udal korporazioa hantxe, guardia zibil eta guzti, artean udaletxera heldu gabe.

- Beste behin ia sei sokamutil atera ziren. Izan ere, Etxe Zuri aurrera kanpotar bat azaldu zen zuriz jantzita, sokamutil irten nahi zuela esanez.

PLAZARIK FUERTEENA AZPEITIKOA

Datuen arabera, Euskal Herrian sokamuturra eta antzeko ekitaldiak milatik gora egiten dira urtero. Asko dira. Gorixo, Arno eta Albizuko ganaduzaleek, ordea, beraien esperientziagatik garbi dute: Azpeitiko da plazarik fuertena.

Fernando Zubiaurre (Gorixo ganadutegia):

“Hemen bueltan herririk garrantzitsuena Azpeitia da sokamutur kontuan”.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“Gehien, Azpeitia. Eta Mutriku bestea. Eta Elgoibar; Elgoibarrek ere sokamuturra asko bizi du. Mutriku eta Azpeitia egongo dira nik ezagutzen ditudan fuerteenak”.

Arratsalde batean —hiru ordu eta erdiko saioan, alegia—, sei bat zezen ateratzen dituzte. Bakoitza batez beste ordu erdiz ibiltzen dute. Beste herrietan, berriz, ordu laurden inguruan, ganaduzaleek diotenez. Ganaduentzat Azpeitiko gogorragoa zergatik den datu bat da hori.

Fernando Zubiaurre (Gorixo ganadutegia):

“Azpeitian behar du zezenak gogorra. Soka handia izaten da. Eta gero ibilbidea ere handia da; ba al dakizu zenbat kale pasatu behar izaten den? Gora eta behera, han eta hona...”.

Sokamuturzale kopurua da beste bat. Horrek ere eragiten dio ganaduari.

Fernando Zubiaurre (Gorixo ganadutegia):

“Jende asko ibiltzen, gainera. Beste lekuetan ez da hainbeste jende ibiltzen, Azpeitian beste. Azpeitian astegunean ere bai, eta jaian ere beti jendea, nik ez dakit nondik etortzen den, baina...”.

Amaia Goenaga (sokamuturzalea):

“Guk sokamuturra txiki-txikitatik bizi izan dugu, eta orduan afizioa daukagu kristorena. Ez dugu ulertzen festa bat Azpeitian zezenik gabe”.

Jaione Uranga (sokamuturzalea):

“Niri txikitatik gustatu izan zait, familatik ere badatorkit. Azkenean ama, osaba, izeba, denak ikusi izan ditut, eta neuk ere txiki-txikitatik ihes

egiten nuen zezenean ibiltzearren. Gero ikusita horrenbeste jende mugitzen duela, gazteak, zaharrak, denak... Azpeitiarentzat garrantzitsua da”.

Soka da Azpeitikoa gogorra egiten duen beste faktore bat. Besteak beste, astuna delako. Behin, ekitaldia bukatzean, soka dena bustita eta zikinez josia zegoela, pisatu egin zuten Etxe Zurinekoan, kapritxoz.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“[Karnabal] Astearte goiz batean sokamuturra egin eta pentsatu genuen pisatzea. 92 kilo pisatu zituen sokak”.

Arno, Gorixo eta Albizuko ganaduzaleen arabera, beraiek ezagutzen dutenez soka argoillan lotuta Azpeitian, Durangon eta Hondarribian besterik ez da izaten. Durangon eta Hondarribian, ordean, ez da Azpeitian bezain sendo lotuta egoten, edo zezena ez da horrenbeste denboran eta kaletan izaten. Horrek ere gogortzen du sokamuturra. Gainera, sokak tope egitean, zezenak kolpea hartzeko arriskua edukitzen du.

Fernando Zubiaurre (Gorixo ganadutegia):

“Txarrena da bazterrari lotuta egoten dela. Beste lekutan ez dago botatzerik zezen hauek; Azpeitian bakarrik!”.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“Han [Azpeitian] kolpe handiak hartzen ditu zezenak. Etsi egiten dute askok; beste batzuek, ikasi”.

Fernando Zubiaurre (Gorixo ganadutegia):

“Zezenak han egiten dira dena izerditu. Hurrengo egunean artean lehortu gabe egoten dira, bustita denak eta izerdituta. Ibili Azpeitian, eta zezenak hamabost bat egun behar izaten ditu bere onera etortzen”.

Beraz, ondorioa garbi daukate ganaduzaleek: Azpeitira zezen handiak ekarri behar dira. Legearen arabera, pisu topea 350 kilotan dago. Sokamuturra hasi aurretik, ordu erdi bat lehenago ganaduaren kamioia Azpeititik Zestoarako irteerara joaten da, gasolindegira, han pasatzen dutelako frogatzen: alaitasuna zain izaten dute pisua kontrolatzeko. Ganadua ikusi, eta balekoa ematen du, edo zezenen bat atzera botatzen du kiloen muga gainditzeagatik. Balekoa izaten da ia-ia beti. Ondoren, ertzainek paperak betetzen dituzte. Dena legez, hortaz.

Fernando Zubiaurre (Gorixo ganadutegia):

“Azpeitian zezen handia behar da. Zezen txikia baldin bada, soka beti arrastaka izaten du eta nekatu egiten da. Azpeitira joateko lau urte behar ditu barrena, indarrean izan behar da-eta. Gure bat lau urterekin hasita joan izan da hamar urtean ilaran Azpeitira, baina batzuek ez dute balio, geuk bezalaxe”.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“Soka hori eramateko zezenak behar ditu urte batzuk, bai; idisko gaztea botatzen bada... Han [Azpeitian] bost urtetik gorako idiskoa komeni da, eta kalean ibilitakoa, gainera. Kalean sokarekin egiten den sokamuturrean egindako idiskoa baldin bada, hobe. Sokan ibili gabeko idiskoa baldin bada, egin dezake itxuran, baina batere ez ere bai. Guri gertatu zitzaigun iaz ere: ekarri idiskoa esperantza oso-osoan, eta kolperik ez zigun egin. Azpeitiarik ez balego, gaur edozein behirekin hemengo osterantzeko lanak egin daitezke. Azpeitiagatik idiskoak eduki behar izaten dira eta horiek urte osoan mantentzea asko kostatzen da”.

Soka ezinbesteko tresna da Azpeitian zezena kalean ibiltzeko. Historiako datuak horren lekuko.

Imanol Elias Odriozola (historialaria):

“Herriak harakin bat izendatzen zuenean herrira haragia eta abar ekartzeko, beti exijitzen zitzaion gauza bat zen soka ekartzeko, hil behar zituen erdi kastako zezen horiek edo idisko horiek kalean ibil zitzan berak. Baina askotan gertatzen zen hark ekartzen ez baldin bazuen soka hori, Udalak izugarritzako isunak-eta ipintzen zituela harentzako”.

Behin festak gainean zirela soka hori ez zegoen Azpeitian, eta hura zen hura Udalaren estutasuna!...

Imanol Elias Odriozola (historialaria):

“Harakina bezala, Udalak elurra jasotzen zuen jende bat ere izendatzen zuen, gero saltzera, ur hori udara partean-eta zabaltzeko. Urte batean gertatu zen elurzale horrek bere soka hori eramane zuela Aizkorriara, beharra zuelako, Azpeitian elur gutxi egin zuelako, handik ekarri behar zuenez elurra. Hara joan eta denbora bat bazen ez zuela ekartzen soka

hori atzera bueltan, eta Udalak agindu zuen soka hori egun batetik bestera ekarri behar zuela Azpeitira, behar zelako”.

Sokamutilek ere lehen izaten zituzten komeriak sokaren egoera zela eta ez zela...

Joxin Beloki (sokamutil ohia):

“Soka orduan oso gutxi ekartzen ziguten guri. Geu kexatu izaten ginen asko, baina ez zegoela dirurik eta abar... Gainera, soka euritan-edo ibili eta asko estropeatzen zen. Segua-eta mataderian ematen zioten; mataderian gordetzen baitzen orduan soka. Urte batean, akordatzan naiz, nilonezkoa ekarri ziguten, hura hemen ona izango zela, oso fuertea zela, hau eta hura, baina ez, ez zuen balio honako. Izan ere, lehorrean harrapatzen bazuen kantoi izkina batean-edo, su hartzen zuen: su, edo berotu egiten zen, eta ez zuen balio batere ezertarako”.

Joxin Belokiren-eta garaian zezen gutxiago ateratzen zituzten saioko, hori ere hala da. Bi-hiru zezen, eta saioa gaur baino ordubete laburragoa izaten zen.

Sokamutilek beraiek prestatzen dituzte sokak; gaur egun, Udalak utzi-ta Damaso auzoan duten lokalean.

Mutilen lana ez da soka bera egitea, jasotzen dituzten sokak uztartzea eta zezenerako prestatzea baizik.

Donostiako denda batetik ekartzen dute soka: Arenzanatik. Hiriburuko dendarik zaharrenetakoa da. 1900ean sortu zuten; 111 urte ditu, beraz. Sokak, kortxoak eta antzeko produktuak saltzen ditu. Baina Azpeitira bidaltzen duen soka ez da Donostian bertan edo Euskal Herrian egin-dakoa. Arenzanakoek Espainiatik jasotzen dute soka mota hori, Ciezatik (Murtziatik), enpresa handi batetik.

Kalamuz egindako soka da Azpeitiko zezenekoa, baina material hori ez da Murtziakoa bertakoa ere, Mozambiketiko, Madagaskartik edo Filipinetatik ekarritakoa baizik.

Gainera, gaur egun ez da kalamu hutsekoa, linuarekin nahastuxe egin-dako soka delako, mutilentzat eskurako ez hain lakarra izateko, gozoagoa baizik, Paco Arenzana dendako jabeak dioenez.

Aurtengo sansebastianetan, astebete lehenago bildu ziren sokamutilak

festetarako soka prestatzeko. Bi egunetan zegoen zezena: sansebastian egunean eta handik hiru egunera, igandez.

Bi soka mota jasotzen dituzte: bat lodia (36 milimetroko diametrokoa), bestea meheagoa (26 milimetrokoa). Biak uztartzea da mutilen lana. Lodia hamar metroko luzerakoa erabiltzen dute, mehea 50-ekoa. Azkenean, uztartzearen ondorioz-eta, soka 55 bat metroan ger-atzen da.

Oskar Osinalde (sokamutila):

“Uztartzeak oso errazak dira. Soka hauek lau kordel bezala edukitzen dituzte, eta lau kordel horiek muturretik 40 bat zentrimetrorra askatu egi-ten dira, eta tope bat jartzen da soka batekin edo zinta batekin. Gero muturrak zinta isolatzailearekin bildu egiten dira hariak ez askatzeko, bestela dena desegin egiten da. Orduan, hauek askatutakoan, lehenengo soka lodia finarekin elkar ezkontzen da”.

Zezenaren koilara parean korapilo berezia egiten dute, segurtasun handiagora lortzearen.

Oskar Osinalde (sokamutila):

“Zezenak tope egiten duenean, korrika batean joaten bada, indar handia egiten dio sokari, eta orduan zenbat eta indar handiagora egin, korapilo klase hau estutu egiten da eta orduan eta seguruago geldit-zen da”.

Koilara, berriz, azkenaldian Ordiziatik ekarri izan dute, Perez larru-dendatik. Sorta bat, urte batzuetarako. Azpeitiko lantoki batean egokitzen zuten koilara: Karreranean. Azken argoillak ere tailer horretan egin izan zituzten.

Azken batean, soka segurua izan dadin neurriak hartzen dituzte, bi soka motak eta hari guztiak ondo uztartuta egon daitezen. Soka kopuru aldetik ere hartzen dituzte neurriak, 2002ko karnabaletatik sokamutur saio luze bakoitzeko berria ateratzen baitute. Erabilitakoak garbitzeari-eta utzi egin zioten.

Oskar Osinalde (sokamutila):

“Udalari aipatu genion ea arazorik ba al zegoen irteera bakoitzean soka berria izateko, eta haiek esan ziguten garrantzitsuena lehenengo segurta-

sun del, hori ez baldin bada gero eta arazo gehiago zeudelako zezena kentzeko aseguru aldetik-eta, eta Udalak berak ere nahiago zuen irteera bakoitzean soka berri bat erabiltzea. Orduan, urtero-urtero, ibilitako sokak, nahiz eta ondo egon, erretiratu egiten ditugu”.

Neurrien ondorioz, segurua da soka. Baina azken urteetan ere hautsi izan da batzuetan. Azkeneko aldiz 2002an, sansebastianetan, zezena Eliz kalean lotuta zela, Erdi kalerako kantoian; plazan harrapatu zuten zezena. 1990ean Iñaki Etxenagusia argazkilariak Artzubian soka eten zeneko irudi hau ere jaso zuen.

Etenagatik edo zezenak topea jota tenkatzeagatik ez ezik, sokak jendeari bestelako susto batzuk ere eman izan dizkio. Edo sokamutilek, hobeto esanda. German Rekejo, Txomin Larrañaga eta hauen garaian 20:00ak pasatxo zirela berriro joaten ziren Erdi kalean gora sokamuturra bukatzean, lasterka eta builaka; oraingoan, soka karroan sartuta, gordelekura zeramatera. Erdi kalea lepo zela. Jendearen sustoa!, zezena zetorrelakoan... Herritarrek protesta egin zuten, eta sokamutilek utzi zioten akzio hura egiteari. 1980an egin zuten azkenekoa.

Zezena beti ez da ibili, ordea, sokarekin. Libre ibili izan da. Herriko plazako itxituren ez ezik, pilotelakuan. XIX. mendean zezena han ateratzen zuten datu bat badago: frontoia erabat aldatu eta Santiyo kalea (gaurko Donejakue) lorategi bihurtzean, ezinezkoa ikusi zuten ordura arte bezala zezena bertan ibiltzea karnabaletan. Dena dela, 1908ko udal erabaki baten ondoren, zezena pilotalekuan izaten hasi zen sansebastianetan eta karnabaletan, libre. Alberga pareko ikullu moduko honetatik ateratzen zuten ganadua. 1960ko hamarkada bukaera aldera utzi zioten ohiturari. Joxin Beloki ezagututakoa da han zezena.

Joxin Beloki (sokamutil ohia):

“Jai giro ona egoten zen hemen. Zezenak ez ziren handitxoak ere, eta zuhaitzetan-eta jendeak asko jolasten zuen. Jende asko egoten zen, eta han ibiltzen ziren batera eta bestera. Bat alde batean kamioiarekin egoten zen eta bestea bestaldean, eta gero barrika batzuekin kantoi izkinak-eta itxita egoten ziren. Oso berezia zen”.

Pilotalekuko parkeko leiendak ere sortu izan dira.

Joxin Beloki (sokamutil ohia):

“Zezena karreran sartu zen eta igo zen eskaileratan behetik gora. Lehenengo solairura ailegatu zenean, nola ez zuen bueltatzeko lekuri, barrutik atea ireki zioten eta barrura sartu zen zezena! Orduan zezenak egin zuen buelta hartu eta atzera berriz goitik behera etorri. Baina batzuek esaten dute lehen balkoira azalduta omen dagoela; hori nik ez dut ikusi”.

LEHEN ARGAZKI BILDUMA



1918ko argazkia. Zezena plazan. Hori da aurkitu izan den argazkirik zaharrena.



1923an sokamuturra plazan.



1926an plazan.



1931n Erdi kalean, plaza aldera.



1935ean enbolatua zezen plazan.



Artetxeneko parean.



Zezena herriko plazan, itxitura eginda.



Beste argazki zahar bat.



Artetxeneko inguruan.



Artetxeneko parean.



Artetxenekoren parean.



Fernando Zubiaurre, Gorixo ganadutegian.



Azpeitiko plazan.



Anton Albizu, Albizu ganadutegian.



Lourdes Udabe, Albizu ganadutegian.



1925eko sokako lagunak, plazara heltzen. Artean ez ziren dena txuriz jazten.



Andoni Mugerza-eta (Andoni, kamioian), Arno ganadutegian.



1961eko sokamutilak, dagoeneko denak txuriz.



1974ko sokamutilak. Lau ziren orduan.



80ko hamarkadan sokamutilak.



1975eko sokamutilak. Handik aurrera bost lagun izan dira sokan.



Plazan zezena.



Sokamutilak zezena plazatik gora eramaten.



Sokamutilak zezena mixikordetik plaza aldera eramaten.



Sokamutil izandakoak 2009ko jai karnabal eguerdian sokan irteteko prest.



Sokamutil izandakoak eta artean zebiltzanak, Loiola hotelean egindako bazkarian.



Sokamutilak Damasoneko lokalean 2011ko urtarrilean, sokak uztartzen.



Dionisio Aizpuru *Kurro* sokamuturzalea.



Idisko handi bat. Zezenak handia behar du Azpeitirako.



Zezena pilotalekuan.

SOKAMUTURRAREN BUELTAN

‘Botijo’, zezen mitikoa

1518rako Azpeitian kalera zezenak ateratzen zituztela kontuan hartuta, ezin kalkula daiteke zenbat zezen aritu den librean eta soka. Baina, agian, denetan mitikoena bat da: *Botijo*. Hauxe da; 1976ko irudiak dira. 1971n ekarri zuten lehenengo aldiz, Albizu ganadutegia Azpeitian estreinatu zen urtean.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“Guri beste ganaduzale batek hots egin zigun: *Saka-k*, Asentxiok. Bera Tolosan zela-eta ea egun bat egingo al genuen Azpeitian. Joan ziren gure etxeok, Sakak deituta, eta besteen artean *Botijo* joan zen. Egundak egin zuen, eta gero Udalak eskatu zuen hurrengo egunean ere *Botijo* eramateko”.

Dauden datuen arabera, *Botijo-k* dauka errekorra Azpeitian: 13 urtean segidan aritu zen. Ikaragarritzko marka da. Egundak berean bi aldiz ere irten behar izan zuen batzuetan, eta, Anton Albizu ganaduzaleak gogoratzen duenez, bigarrenengoan ez zen ibiltzen lehenengoan bezala, baina orduan ere ez zuen hutsik egiten.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“[Idisko] Normala zen, ez zuen hark berezitasunik ezer ere, baina ona, ona-edo irten zuen. Zeozergatik dauka fama hori. *Botijo-k* nahiz eta egin ez, jendeak *Botijo* nahi zuen”.

Besteak beste, Fernando Bereziartua *Pikua-k* definizio zehatza emana du idisko hartaz: “Ibiltaria zen soka, eta azpeitiarroi halakoak gustatzen zaizkigu”. Ibiliaren ibiliz, *Botijo-k* ba omen zekien sokakoak non zeuden, kale bazterrak ezagutzen zituen, edota ez zuen toperik jotzen.

Joxin Beloki (sokamutil ohia):

“Han barrenetik [Etxe Zurinekotik] irten zuen *Botijo-k*, eta debekatu errotulo bat jo eta kateatu zuen eta Azpeitia taberna den inguru horretan pasatu gintuen sokamutilak, baina errotulo hori pixka bat lehenago laga zuen, ez zen honaino etorri, baina kateatuta etorri zen handik”.

19 urte zituela kendu zuten, osasun kanpaina bat hasi zenean. Ez da batere ohikoa, ezinezkoa dela ez esatearren, idisko batek hainbeste urte irautea bizirik.

Lourdes Udabe (Albizu ganadutegia):

“*Botijo* aska honetantxe egoten zen normalean. Beste denei askak garbitutakoan, hemen ematen genion jaten. Hil zenean pentsatzen genuen gibela txarra edukiko zuela, ez genuela jango. Baina gibela ona zeukan, eta tripa barruan zeuzkan tornilloa, iltzeak, alanbreak... eta, hala ere, idiskoak hori dena barruan edukita saltaka egiten zuen plazan”.

Hil aurreko urtean kapan ibili zuten Portugaleten. Barakaldon ere urteetan ibili zen kalean; argazkikoa da une haietako bat.

Makina bat pasadizo dituzte Albizukoek *Botijo*-z; Azpeitikoak ez ezik, kanpokoak ere bai.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“Erreterian entzierro gogorra izaten zen. Orain dela 35 bat urte-edo guk egiten genuen, eta jende asko izaten zen, beldurgarria zen hura. Behin *Botijo*-k egin zuen hesia saltatu, alguazilak azpian pasatu eta atzera ikuilura bera sartu zen”.

German Rekejo orduko sokamutilaren eta *Botijo*-ren arteko harremana nabarmentzen dute askok.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“German sokamutilak nik ez dakit innotizatu edo zer egiten zion. *Botijo*-ren aurrean bi metrora jartzen zen eta ez zion arrankatzen. Beste denei arrankatu, eta hari ez zion arrankatzen. Innotizatu egiten zuen, edo ezagutu egiten zuen *Botijo*-k, edo zer egiten zuen ez dakit; harekin oso desberdin egiten zuen”.

Luis Angel Etxeberria (sokamutil ohia):

“Niri Martzelinok [Albizu] esan izan zidan nire lagun Germanek *Botijo*-rekin lo egingo zuela, eta nik uste dut egia izango dela igual. Izan ere, hark egiten zizkionak *Botijo*-ri ez zegoen sinisterik. Edozein hurreratzen zena *Botijo*-rengana, gehienetan behintzat ez zuen ondo, ukitu gabe irteten. Germanekin nik ez dakit zer pasatzen zen; hari ez zion ezer egiten”.

Etxe Zurineko irteera hura

Botijo zezen berezia izan bazen, Etxe Zurineko irteera ere oso izan zen espeziala. Urteetan hasi zen han sokamuturra, ikuilutik irten zezenak eta Erdi kalean gora abiatzeko.

Etxe Zuri aurreko plazan zeukaten irteera puntua sokamutilek.

Oraintxe dela 35 urte inguru sokamutur saio batean hiru aldiz atera behar izan zuten zezena Etxe Zurinekotik. Lehen biak plazara iritsi, eta erretiratu egin behar izan zituzten, ikuilura bertara. Aurrena, txarra zelako. Besteak adarra hautsi zuen. *Botijo* atera zuten hirugarrengoa.

Joxin Belokiren-eta garaian ez zuten zezena kamioian aldatzen, herrian zeuden ikuilu batzuetan baizik. Astotegian zegoen bat, garaiko Tomasenekeko taberna ondoan. Goiko Errotan beste aldaleku bat zegoen. Zezen plazan ere bai. Bukaeran Etxe Zurinekora erretiratzen zuten zezena.

Lehen, orain aldean ganadutegi gutxiago etortzen zen, eta, karnabale-tan-eta egunero joan-etorrian ez ibiltzearren, Saka ganadutegiko arduraduna Etxe Zurineko etxean lo egindakoa da. Martzelino Albizuk Sanjuandegiko etxe batean hartzen zuen ostatu: Joxe Urbietta Barrenetxearen etxean. Hau haren baserrian lan egindakoa zen, izan ere. Argazkian, Martzelino Etxe Zurineko ikuiluan ageri da, bertako Pedro Arrieta zenarekin.

Etxe Zurineko taberna traspasatzean utzi zioten hango ikuilutik zezena ateratzeari. 1980tik Erdi kale behean dago hasiera.

Gero eta segurtasun neurri gehiago

Zezena kalean dagoen unetik bertatik dago arriskua. Ez dago bromarik.

Ezbeharrak-eta eragozteko helburuarekin, gero eta segurtasun neurri gehiago hartu izan ditu Udalak: hesiak ipintzen ditu ibilbidean, sokamuturra egongo den oharrak jartzen ditu errepide hesietan, gogorarazten du 16 urtetik beherako lagunek ezin dutela zezena dabilen ibilbide barruan egon, irtenaldiko soka berriak ateratzen dituzte, sokamutur ekitaldiak ase-

gurua du, sokamutilek ere badute, bi anbulantzia uneoro egoten dira ibilbide ondoan prest...

Tarteka behar izaten da DYAkoen beharra. Aurtengo urtarrilaren 23an, esaterako, plazan. Sokamutilek soka ohiko tokitik Hispanoneko uztaira mugitu behar izan zuten.

Mikel Odriozola (sokamutila):

“Ikusi dugu batek mina hartu duela hor, sokak botata. Arriskua zegoen, bota duen hori plaza erdi-erdian zegoelako. Orduan, Hispanonekoan lotu dugu, eta soka moztu, zezena hara ailegatu ez dadin, eta anbulantziek eta DYAk beren lana ondo egin dezaten”.

Eusko Jaurlaritzak sokamuturreko arauak asko gogortu nahi zituela-eta, 2008ko sansebastianetan, arratsaldeko zezena hasi aurretik, protesta eta aldarrikapen ekintza egin zuten sokamutilek, Udalak eta beste eragile batzuek Azpeitian. Azpimarratu zuten jakitun zirela arauak bete behar direla, baina Azpeitiko sokamuturrak historia luzea duela, eta errespetatzeko. Jendetza bildu zen. Azkenean Jaurlaritzaren arauak ez dute herriko sokamuturraren martxa normala askorik baldintzatu.

Baina, inor ba al da seguru?

Arauak arau eta neurriak neurri, ordea, inor ba al dago seguru sokamuturreko ibilbidean? Zezena dagoen eta jendea erruz biltzen den tokian, ezin halakorik esan.

Latza da zezenaren kolpea. Indar handia baitu. Pentsa, 1898ko karnabalean zezenak parroki atariko burdinezko atea aireratu eta hautsi egin zuen.

Kalean ez ezik, barruetan ere bada arriskurik. Ustekabean, hor duzu bitxoa ber-bertan.

Argazkilarien uneak

Zenbat urte dituen sokamuturrak..., eta zenbat argazki joan ote diren. Batik bat, Azpeitiko Antxieta Etxeak —Imanol Elias buru zela—, eta

Gipuzkoako Kutxak 1980an sokamuturreko argazki lehiaketa antolatzeari ekin ziotenetik.

Iñaki Aranburu (Azpeitiko Argazki Elkarte):

“Karnabalak festa handia dira hemen, Azpeitian, eta argazkizale asko zegoenez garai hartan ere, pentsatu genuen zergatik ez genuen lehiaketa bat-edo antolatzen. Bagenuen areto bat [Antxieta Etxea], lanak erakusteko moduan, Imanol Eliasek lagunduta. Urtean-urtean gero eta jende gehiago parte hartzen joan da. Alde horretatik oso gustura gaude; arrakasta handia izan du lehiaketa honek”.

Lehen edizioko irabazlea Luis Rey izan zen, *Cuerda de cáñamo* izeneko argazki honekin.

Jose Luis Lopetegi (Azpeitiko Argazki Elkarte):

“Sasoi batean joaten ginen momentu onen bila, arriskuko momentuen edo une erakargarrien bila. Horretarako egin behar izaten zen sasoi bateko kamerekin-eta zezenarengana asko hurreratu. Bolada batzuk izan ziren asko hurreratzen ginenak eta, hori zela eta ez zela, momentuan larrialdiak pasatutakoak eta bat baino gehiago harrapatutakoak ere bai. Gaur egun, berriz, nik uste dut aldatuta dagoela: objetibo handiekin, urrutitik, zoom handiekin ibiltzen gara, gehiegi hurreratu gabe, nahiz eta zenbait momentutan dezente hurreratu behar izan”.

Antxieta eta Kutxak 25 urtean antolatu zuten lehiaketa. Azpeitiko Argazki Elkarteak hartu zien lekukoa. Irudi altxorra dago, Imanol Eliasek azpimarratzen duenez.

Imanol Elias Odriozola (historialaria):

“Kutxak 25 urtean zehar antolatu zuen lehiaketa, gero Argazki Elkarteak hartu zuen, eta ordutik hona ikaragarritzko argazki pila dago sokamuturrari buruz. Nik uste dut hori oso dokumentu interesgarria dela, jaso dena. Gainera, ez da bakarrik ikusten zezena eta jendea kalean jolasean, baizik eta tokiak ere ikusten dira, herrian zer aldaketa izan diren ere bai, eta horrelako datu interesgarriak asko eta asko daude”.

Hori bai, argazkilariei beraiei ere atera izan dizkiete erretratuak. Hemen da Miguel Angel Iriarte *Sarralle* pasea ematen plazan, 1995ean; lehiaketako 1. saria izan zen. Eta hemen, Juan Mari Ibarzabal ageri da, larri.

Jakina, argazkilari bakoitzak bere txokoak dauzka lehiaketan, bere unerik gustukoenei klik egiteko.

Jose Luis Lopetegi (Azpeitiko Argazki Elkartea):

“Ibilbide guztian niretzat momenturik erakargarriena zezena ateratzera doana da; batik bat, Erdi kalean, arratsaldeko lau eta erdietan. Nik uste dut jende gehien orduantxe egoten dela, kamioi ondoko tabernetan egundoko ambientea ere bai, eta gazte mordoska bat zaletasun izugarriarekin, zeharo animatutakoak ere bai... Neuri normalean gustatzen zait momentu hori argazki bidez jasotzea. Ambiente berezi bat da”.

Argazki Elkarteko kidea da Jexus Artola, eta 2009ko urrian *Azpeitiko sokamutilak* argazki DVDa aurkeztu zuen. Juan Mari Ibarzabal elkartekideak egin zion montaje lana. 200 argazki inguru daude DVDan eta, horien artean, 58 sokamutilen argazkiak dira. Bilduma lanari ez dio utzi, ordea, Artolak.

Jexus Artola (*Azpeitiko sokamutilak* argazki DVDaren egilea, Azpeitiko Argazki Elkartea):

“Bilduma hori beti osatzen joan nahi dut, eta jendeak gehiago baldin badaki, neuri esan hau eta hura badaudela, joango nintzateke haiengana, eta hartara gehiago lortuko genituzke”.

Makina bat lagunekin egon zen Artola argazkiak biltzeko, eta pasadizo asko entzundakoa da hura ere.

Jexus Artola (*Azpeitiko sokamutilak* argazki DVDaren egilea, Azpeitiko Argazki Elkartea):

“Pasadizo txiki bat bezala esango dut arratsalde batean sokamutil baten ordeztu batek irten zuela, gurasoei-eta ezer esan gabe, eta gertatu zitzaion bera harrapatu egin zuela zezenak. Hurrengo egunean jakin zuten etxean, eta errieta gogor bat eduki zuen, han bertan —baserrian— zezenekin eta behiekin nahikoa beldurtia zelako”.

Eguraldiak lagundu ez arren

Irudi bereziak izaten dira sokamuturraren garaian, ezbairik gabe. Ez denak zezenak eragindakoak, baina.

Fernando Zubiaurre Gorixokoak kontatzen du Azpeitian zezena ez izateko, kalean urak lehen pisuan egon behar duela. Hala ote?... Egia dena da oso zaila dela sokamuturra suspenditzea eguraldiagatik. Moztu bai, inoiz egin izan dute. 1996an, esaterako, euri jasagatik astelehen karnabal arratsaldekoa sei eta erdietan bukatu zen, ordu eta erdi lehenago.

1996an bertan, otsailaren 20an, astearte karnabalean elurra latz egin zuen, baina ez zuten sokamuturra suspenditu. Goizeko zazpiak aldera han zegoen ambientea!...

Giro horretan atera zuten zezena, *Castro* izenekoa. Arratsaldean ere izan zen sokamuturra, elurretan.

Beste pasadizo batzuk

Une bereziak ez ezik, momentu gogoangarriak ere badira. Unean-unean pixka bat konplikatuak haietako asko, baina denborarekin anekdota izatera bilakatu direnak.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“Astearte goiz bateko sokamuturrean Errebalean bota behi bat, eta behera abantatu, sokako mutil denak pasatu egin zituen eta plazan azoka barrura sartu zen, eta postu denak eta frutak-eta bota zituen”.

Andoni Mugerza (Arno ganadutegia):

“Enparan kalean azkeneko momentuetan genbiltzala soka eten zuen zezenak eta, plazara hartu partez Erdi kalera pasatu eta goitik behera joan zen, Etxe Zuri aldera. Gero, harrobira; kamioiak-eta garbitzen diren potzura salto egin zuen, gero irten ezin, gaua zen, eta kamioien garabiarekin-eta ahal zen bezala kanpora atera genuen. Ileak-eta denak joan zitzaizkion idiskoari, eta bere izena azkenean: *Navarra*”.

Luis Angel Etxeberria (sokamutil ohia):

“Eliz kale honetan badaukat pasadizo bat oso zezenzalea den nire lagunekin. Nik soka irteten nuen. Mutil koskor bat harrapatu zuen zezenak eta dezenteko astindua eman zion. Karrera batean sartu genuen eta mutila sustoarekin zegoen; ez zen ikusten, itxuraz, min handia zeukanik, baina susto handia zeukan. Nire laguna etorri zitzaion, eta esan

zion: ‘Hi lasai egon mutil, Azpeitian zezenak harrapatzea urguilu bat delako, eta hire lagunen aurrean handia izango haiz-eta’. Mutil koskor hori begiak ireki-ireki eginda geratu zen. Zer gertatu zen handik pixka batera, eta nire lagun hori falta...; zezena pasatu zen eta nire lagun hori harrotu zuen. Anbulatoriora eraman behar izan zuten. Egun batean egon zen obserbazioan, eta esaten nion, ‘zer moduz urguilua?...’. ‘Lagaiok bakean urguiluari!’”.

Anton Albizu (Albizu ganadutegia):

“*Botijo*-ren anaia *Xarpa* idiskoak igande karnabal arratsalde batean uhala eten zuen eta Izarraitzera, plaza goiko baserri batera ihes egin zigun. Astelehen goizean harrapatu nuen, ganbara batera sartu nuen behi mantso batekin, eta atzera berriz arratsaldean sokamuturrean bota genuen”.

Zezenak kamioian kargatzen

Aurtengo San Sebastian eguna, urtarrilak 20. Esnatzen ari da eguna. Arnoko zezenak tokatzen dira, eta goizean goizetik dena prestatu beharra dago Mutrikutik Azpeitira garaiz heltzeko.

Sei zezen kamioira sartu behar dituzte, eta ordubete inguruko lana daukate Andoni Mugerzak eta konpainiak.

Garai batean zezenak, beraiek zuzenean sartzen zituzten kamioian, helduta, eta oraingoan bi halaxe sartu dituzte.

Gaur egun pasillo bat baliatzen dute zezenak kamioira bideratzeko, ero-soagoa delako.

Lanak egin ondoren, hamarretakoa, Andoniren amak prestatutakoa. Salda, urdaiazpikoa, txistorra eta kafea.

Hamar eta erdiak pasatxo dira; Azpeitira martxa egiteko garaia. Hamabietan da eguerdiko sokamuturra.

Sokamutilen kilimak

Arratsaldeko saioa, berriz, lau eta erditan hasten da, baina sokamutilek askoz lehenago ekiten diete eguneko prestaketa lanei. Zaindu beharra

dago. Bazkaldu, adibidez, Mikel Odriozolaren kasuan bezala, ohi baino arinago egiten dute. Urtarrilaren 23a da. Jantzi, eta Erdi kale aldera, kilimekin.

Mikel Odriozola (sokamutila):

“Hiru ordu laurden falta dira etxafuegoak jotzeko, eta hemen hasten da pixkanaka tripa bueltak ematen. Pentsatzen hasten gara ea etxafuegoak jo eta gero Erdi kaletik gorako irteera hori nola izango den, dena ondo joango al den, zezenak zer egingo duen, zeu nola ailegatuko zaren...”.

Hiru ordu eta erdiko sokamuturra daukate aurretik, kalez kale ibili behar dute zezena herriaren erdigunean.

Egun gogorra tokatu zaie: harrapaketak, soka tenkatzean hartutako kolpeak, erorikoak, bestelako zartadak... DYAk 11 lagun artatu ditu.

Mikel Odriozola (sokamutila):

“Gaurko eguna ikaragarri gogorra izan da. Izan ere, ganadua gogorra, egur handikoa, susto mordo bat, pare bat aireratu ditu, besteren bat plazan harrapatu du, beste bat sokak bota du... Lana egundokoa. Eguna bukatu da eta orain karnabalak arte erreku-peratu egin behar”.

Lau orduko saioa, lau mila euro

Zezen festa izaten da Azpeitikoa, bistan da. Baina, zenbat kostatzen da egun bateko sokamuturra, eguerdiko eta arratsaldeko saioak biak kontuan hartuta? Udalaren datuen arabera, ganadua 2.400 bat euro, ekitaldiaren eta sokamutilen aseguruia mila euro, eguneko soka 300, eta albaitaria ia 300. Lau mila euro, hortaz, lau orduko saioagatik.

Zezen Beltz elkartearen lana

Baina kaleko zezenean dena ere ez da sokamuturra. Ia dena bai, baina dena ez. Beste hainbat gauza egiteko helburuz, Zezen Beltz elkartea sortu zuten sokamutilek, sokamuturzaleek edota ganaduzaleek 2008ko otsailaren 2an, karnabalen bezperan.

Mikel Arrieta (Zezen Beltz Azpeitiko elkartearen):

“Zezen Beltz elkartearen sortu zen gehienbat zezenaren bueltan gabiltzan jendea biltzeko, sokamuturra babestu eta sustatzeko, ekimen berriak egiteko herrian eta lehengo ohitura zaharrak-eta igual berreskuratuzko. Sokamuturretik aparte umeentzako ekimenak ere antolatzen ditugu, umeen artean zaletasuna sortzeko”.

Hain justu, Jabier Iraetak sokamuturraren omenez egindako eskulturaren ondoan izan zen Zezen Beltzen aurkezpeneko agerraldi hura. 2002an inauguratu zuten eskultura, pilotalekuan, jai karnabalean.

Hainbat ekintza antolatzen edo laguntzen ditu Zezen Beltzek urtean zehar: entzierro txikiak, zezen txikiak eta poniak, elkartearen asteburua, hainbat kale edo auzotako festetan zezena, errekoritari txapelketa...

Azpeitian zezenak duen presentzia handiaren beste adibide bat: inauteriei adio esateko ez da egiten, beste tokietan bezala, sardinaren hileta, baizik eta zezenaren hileta. 1980tik, Udalaren erabakiz. Pirotecnia Zaragozanak aurreko saninazioetan udaletxean utzitako suzko zezen bat baliatu zuten horretarako. 2000tik sokamutilek eramaten dute Erdi kaletik plazara, soka eta guzti.

SOKA EZ DA ETEN

Historia luzea du sokamuturrak Azpeitian. Esate batera, ondorengo bi argazki hauen artean 75 urteko tartea dago, baina berberak dira ezaugarriak: tokia, zezena, soka, jendea... Festa.

500 urte hauetako adibide bat besterik ez da.

Soka ez da eten.

BIGARREN ARGAZKI BILDUMA



Botijo zezena plaza aldera.



Botijo Olazko Amaren plazan.



Botijo Barakaldon, 80ko hamarkadan.



Martzelino Albizu ganaduzalea eta Pedro Arrieta Etxe Zurineko ikuiluan.



German Rekejo sokamutila *Botijo*-ren aurrean, Errebalear.



Zezena Etxe Zuri taberna aurretik pasatzen, ikuilutik irten berritan.



Sokamutil batzuk Perez Arregi plazan, zezena Etxe Zurinetik ateratzen zutenean.



Bi argazkietan, Etxe Zurineko ikuilutik zezena ateratakoan.



Sokamutilak Perez Arregi plazan, zezena Etxe Zurinetik ateratzen zutenean.



Sokamutilak Perez Arregi plazan, zezena Etxe Zurinetik ateratzen zutenean.



Anton Albizu ganaduzalea Etxe Zurineko ikuiluan.



Zezena Tomaseneko taberna ondoko ikuiluan, astotegian.



Zezena albergan.



'Camalento' zezena.



2011ko sansebastianetan DYAkook lanean plazan, gazte bat sokak bota zuela-eta.



Artetxenekok parean lagun bat larri zezenarekin.



Fideo tabernan zezena.



Fideo tabernan zezena.



Izarraitz Txoko soziedadean zezena.



Sokamuturreko I. argazki lehiaketako irabazlea: Luis Reyren *Cuerda de cáñamo*.



1980an argazkilari bat irudia atera nahian, Errebal aldean.



Juan Mari Ibarzabal argazkilaria larri plazan.



Agustin Madrazo argazkilaria zezenari klik egiten, Errebalean.



Jai karnabal arratsaldeko irteera. Argazkilarien gustukoa da, bistan denez.



Jai karnabal arratsaldeko irteera.



Jai karnabal arratsaldeko irteera.



Zezenak 1990ean Artzubian soka eten zueneko. Iñaki Etxenagusiaren argazkia da.



Miguel Angel Iriarte *Sarralle* argazkilaria 1995ean plazan zezenari pasea ematen.



Jexus Artolak 2009an egindako argazki DVDaren azala.



1996ko astearte goiz karnabaleko irudia: elurretan sokamuturra. *Castro* zezena.



Zezen Beltz elkarteak antolatutako zezen txikien ekitaldia, plazan.



Sokamuturraren omenez 2002an pilotalekuan inauguratutako eskulturaren ekitaldia.



Suzko zezena plazara bidean, karnabalei adio esateko.



2011ko sansebastianetan zezenaren buruan jarritako kamerarekin hartutako irudiak.



Arnoko idiskoak kamioian.



2000. urteko argazki bat.



Sokamuturra Errebalean.



Soka plazako argoilan lotzen.

‘AZPEITIKO SOKAMUTURRA. SOKA EZ DA ETEN’

dokumentala

ZUZENDARIA

Enekoitz Esnaola

ERREALIZADOREA

Lara Madinabeitia

ARGITARATZAILEA

Zezen Beltz elkarte

GIDOIA ETA ELKARRIZKETAK

Enekoitz Esnaola

AHOTSA

Kepa Urbiet

BIDEO IRUDI ZAHARRENAK

Jose Manuel Asiain

Kaito

Agustin Madrazo

IRUDI BERRIAK

Lara Madinabeitia

BESTE BIDEO IRUDI BERRIAK

Kaito

Agustin Madrazo

Julen Etxeberria

Iñaki Azkue

Maite Azkue

Sokamutilak

Enekoitz Esnaola

Zezen Beltz elkarte

Jose Manuel Jimenez
Goierriko Hitza
Canal ALProducciones
Canal Arriazu91
Canal Toriviciao

ARGAZKIAK (EGILEAK EDO UTZITA)

Jexus Artola
Iñaki Etxenagusia
Juan Mari Ibarzabal
Luis Rey
Miguel Angel Iriarte *Sarralle*
Juan Carlos del Pozo
Esther Berasategi
Jose Miguel Arruti
Azpeitiko Jaiak liburua (Txakel komunikazio eta irudi enpresa)
Imanol Elias Odriozola
Fernando Bereziartua
Xabier Madina
Juan Joxe Urkia
Lurdes Arrieta
Joxin Beloki
Anton Albizu

MUSIKA

Azpeitian inauteriak diskoa (Azpeitiko Udala, Udal Musika Banda, Julian Barrenetxea
Abesbatza, Juan de Antxieta Musika Eskola)

DVD-AREN AZALEKO MONTAJEA

Leire Oiaga

BABESLE NAGUSIA

Azpeitiko Udala

BESTE BABESLEAK

Domusa
Kiruri
Ukabi

ESKERRIK ASKO

Dokumentaleko elkarrizketatuei
Bideo irudi hartzaileei
Argazki egileei edo utzi dituztenei
Musikaren atalekoei
Lara Madinabeitia
Kepa Urbietia
Azpeitiko Udala
Urtzi Oteiza
Josu Labaka
Pili Arrieta
Leire Oiaga
Fernando Arakistain
Ramon Etxeberria
Esnaola-Karrera sendia
Eneko Etxeberria
Ihintza Agirretxe
Iñaki Berasategi
Jon Osa
Egoitz Garciaetxabe
Mikel Ugartetxea
Maria Angeles Arriola
Arantzazu Aranburu
Uztarria komunikazio taldea
Urola Kostako Hitza
Eregi komunikazio eta euskara enpresa
Azpeitiko Kultur Mahaia
Bihots kultur zerbitzuak
Eguzkitza taberna
eta babesleei





Azpeitiko sokamuturra. Soka ez da eten dokumentalaren aurkezpena Sanagustin kulturgunean, 2011ko otsailaren 26an. Dokumentaleko kideak, emanaldiaren bukaeran.

Azpeitiko sokamuturra

SOKA EZ DA ETEN

Gutxienez, 500 urteko historia dauka Azpeitiko sokamuturrak, eta herrian sustraitutako ohitura honen berri ematea da dokumentalaren helburua. Baita belaunaldi berriei begira transmisio lana egitea ere. Era berean, sokamuturraren atzean dagoen lana kontatzea nahi du, ganaduzaleen eta sokamutilen konpromisoa azaltzea.



ZUZENDARIA: **Enekoitz Esnaola**

ERREALIZADOREA: **Lara Madinabeitia**

2011ko otsaila, Azpeitia 

ARGITARATZAILEA:



www.zazenbeltz.com

BABESLEAK:  Domusa, Kiruri, Ukabi

LEGE GORDAILUA: 55-276-2011 ©copyright